

## EDITORIALA

### Ehun eta gehiago

Zenbat aldiz esan ohi dugu gure proiektua, ELAren proiektua, ez litzatekeela posible baldin eta mila eta milaka militanteren lan eskerga eta ekarpenari esker? Beste behin baieztatu beharra dugu ez dagoela proiektu sendorik, ez organizazio indartsurik, jendearen konbentzimenduan oinarritzen ez bada. Ehun urtetako ELAren ibilbidean makina abagunetan frogatu ahal izan da honelako baieztapena. Une latzenetan ere –gerra garaia, erbesteratzean, klandestinitatean, heriotza zigorretan...– denetan, militanteek eman diete gorputza eta indarra ELAri.

Klasekoa eta abertzalea den sindikatuak bere izanari tinko eutsi dio denboraldi luze honetan. Egun ere, ELAko militanteak ongi erroturik ditugu gureak egin ditugun ezaugarri horiek. Harrokeriarik gabeko harrotasunaz azaldu deza-kegu eginikoa. Eta, dudarik gabe, gure belaunaldiak ELAri eta aurreko militanteei egin diezaikeen ekarpenik sendoena, emankorra, langile klasearen egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egitea da. Ikasi eta jasotako lekukotza bizirik, kementsu eta indartsu jarraitzen duela eta aurrerantzean ere borondate irmoa dugula bide beretik jarraitzeko, izango dira gure zilegitasunaren seinale.

Omendu, beraz, gure aurrekoak izan zirenak, eta omendu ere egun, oso egoera gordinean, konpromiso militantean diharduten pertsonak. Besteak beste, mendeurrenaren ekitaldiak belaunaldien arteko zubi izan nahi du omenaldi honetan. Eta ekitaldiak aurrera begirako indarberritzeak ekarri behar digu, langile klasearen defentsan eta nazio eraikuntzan ere. Garai ezberdinak badira ere, sindikatuaren beharra du gizarteak, organizazioaren beharra hainbeste bidegabekeria eta injustiziarik aurre egiteko. Horregatik gure lehentasunen artean langileak gure proiektuan lerrokatzea da, euskal eta sindikatua letra lodiagoz, handiagoz ezagutu dadin. Zorionak ELA.

**El acto central del centenario pretende ser un homenaje a la militancia de ELA y abordar los retos de futuro**

## EN RECONOCIMIENTO A NUESTRA GENTE

**Once de junio de 1911.** Un grupo de trabajadores y trabajadoras vascos presentan los primeros estatutos de Solidaridad de Obreros Vascos en Bilbao. Era el primer paso de un proyecto sindical abertzale y de clase que poco a poco fue extendiéndose por toda Euskal Herria. Cien años después, podemos afirmar, con humildad pero con orgullo, que esa nueva organización de trabajadores/as es el primer sindicato de Hego Euskal Herria.

Fueron 178 los trabajadores que aprobaron el reglamento y fundaron nuestro sindicato en la calle Correo de Bilbao, en pleno Casco Viejo. Hoy ELA tiene casi 110.000 afiliados y afiliadas, y más del 35% de representación en Hego Euskal Herria. Durante todo este camino las dificultades han sido muchas y muy duras. Sin embargo, nada ni nadie ha podido parar este proyecto que si hoy sigue más vivo que nunca es gracias al esfuerzo militante de miles de personas.

**Once de junio del 2011,** sábado. Pabellón Bilbao Arena, Miribilla, Bilbao. ELA celebrará como se merece su primer siglo de vida. El acto quiere ser un homenaje a nuestra militancia, que es, en definitiva, la que ha que ha hecho posible este proyecto. Por ello, el objetivo es reunir y reconocer a todas esas personas que han aportado su granito de arena.

*ELAren mendeurrena ospatzeko ekitaldi nagusia ekainaren 11n izango da, Bilbon. Festa biribila prestatu dugu; ehun urte ez dira egunero betetzen!*



## ABERASTASUNA, GERO ETA ESKU GUTXIAGOTAN

**ELAk Soldatak handitzea, aberastunaren banaketa justuagoa egiteko bidea** izeneko txostena aurkeztu zuen ekainaren lehenean. Txostenak agerian uzten duenez, aberastasunaren banaketaren bilakaerak enpresarien eta kapitalaren errentei dakarkie onura, lan-errenten kaltetan. Desoreka horrek, gero eta handiagoa dena, ondorio larriak ditu langile jendearentzat; langileek, langabeek eta pentsiodunek batez besteko errenta baino diru-sarrera txikiagoak jasotzen dituzte.

ELAk askotan salatu du egungo testuinguru honetan milaka eta milaka direla Euskal Herrian gorriak eta bi ikusten ari diren lagunak. Hala ere, patronala eta kapitala ez daude kexatzeko moduan. Enpresa handiak

zuzentzen dituztenek lotsagarritzat hartu daitezkeen izugarritzko diru-sarrerak dituzte. Enpresen mozkinak 2010ean hazi egin izanak ere erakusten du gure gizartearen berdintasunik eza, lan-kostuak urritu egin baitira.

Txostena ELAren web atalean irakurri liteke. Gainera, 3. orrialdean informazio zabalagoa dago. Dena den, ondorio gisa honako puntu hauek nabarmendu litezke.

- Aberastasunaren banaketa eztabaidaren erdigunean ipintzeko garaian gaude.
- Bai arlo publikoan, bai pribatuan, soldaten eroste-ahalmena gutxitzeko erasoak etengabeak dira.
- Aberastasunaren banaketa jus-

tuagoa izan dadin, soldaten eroste-ko ahalmena handitu behar da.

- Beharrezkoa da ere lanaren banaketan aurrera egitea, lanaldiak murriztuz.
- Ekonomian marjina zabala dago langileriaren diru-sarrerak handitze-ko.
- Enpresariak enpleguaren eta langileen soldaten pentzudan ari dira enpresa-mozkinak gizentzen.
- Ez da harrigarria enpresetako goikarguek, itzelezko ordainsariak jaso eta euren burua milioi eurotako pensio-planekin babestuta dituzten horiek, gobernuari zer egin behar duten agintzea eta gobernuak beraiei kasu egitea.



Imagen de la primera manifestación organizada por nuestro sindicato, en diciembre de 1911

El acto comenzará a las 11:00. Se esperan más de 4.000 personas, por lo que sería conveniente acudir con tiempo de sobra para evitar aglomeraciones de última hora y que el programa cumpla el horario establecido. Con el fin de facilitar la presencia a nuestra militancia, ELA ha organizado autobuses desde las distintas cabeceras de comarca, salvo las cercanas a Bilbo, –Bilbao, Ezkerraldea-Kadagua y Eskumaldeá–. Para quienes acuden desde estos puntos, se puede acceder al mismo fácilmente a pie, por tranvía, (Parada Atxuri y cruzando el Puente de San Antón), autobús público o tren.

Tras la actuación de inicio, saludo y bienvenida a los asistentes, se emitirá

un video que analiza la historia y el presente de ELA. En el acto se repartirá una copia del video a todas las personas que acudan a Miribilla. A continuación intervendrán brevemente representantes de tres de las organizaciones internacionales invitadas: Jaap Wiene, de la Confederación Sindical Internacional, Bernadette Ségol, de la Confederación Europea de Sindicatos y Claude Rolin, secretario general de la CSC de Bélgica. Sin duda, será una manera de agradecer a todos aquellos sindicatos

internacionales que durante tantos años, –sobre todo en los duros tiempos de la dictadura franquista–, nos dieron su apoyo y solidaridad.

Después de los representantes internacionales, intervendrá el secretario general de ELA, Adolfo Muñoz, Txiki. Además, dentro del programa se intercalarán actuaciones musicales. Para finalizar el acto, que en total se espera tenga una duración de algo más de dos horas, habrá una actuación final.

*ELAren proiektua soilik posible izan da militantziaren lana eta konpromisoarengatik. Hori aitortzea da mendeurreneko ekitaldiaren helburua.*

## INTENSA SEMANA DE ACTIVIDADES

El del 11 de junio será el acto central del centenario, pero no el único. Durante toda la semana se han organizado diferentes actos. Sin duda, la formación será la principal protagonista. Los días 9 y 10 de junio se celebrarán los cursos de verano que organiza todos los años la Fundación Manu Robles-Arangiz en colaboración con UNED-Bergara. El seminario será por la mañana –de 09:00 a 14:00– en el Auditorio Alhóndiga de Bilbao, en la Plaza Arriquirar, 4.

Bajo el lema *Claves para la renovación sindical* expertos y sindicalistas de diferentes lugares –sobre todo de Francia, Quebec, Bélgica e Italia– analizarán, cada uno desde su experiencia, qué recursos y capacidades clave pueden permitir la renovación e incremento del poder sindical.

Además, la exposición itinerante que está recorriendo Euskal Herria estará en Baiona la semana del 6 al 13 de junio. Luego irá a Ibaizabal-Nerbioi y Gasteiz.

ELA quiere agradecer a todas las personas que han acudido hasta ahora a ver la exposición itinerante. Sin duda, una buena ocasión para juntar a quienes han aportado su granito de arena en estos 100 años.

## Hauteskunde sindikalen epealdi-trinkoa bide onetik doa Nafarroan

# AZKEN TXANPAN MURGILDUTA



Pozik dago ELAK Nafarroan duen arduradun Mixel Lakuntza hauteskunde sindikalen ibilbidearekin. Euskal Autonomia Erkidegoan ez bezala, hauteskunde sindikalen epealdi-trinkoak oso bestelako egutegia du Nafarroan. Iragan urteko irailaren lehenean hasi ziren, eta ekainaren azken egunean amaituko da. Bederatzi hilabete hauetan 3.300 ordezkari sindikal berri izango dira. Kontutan izanda Nafarroa osoan kopurua 6.500ekoa dela, epealdi-trinkoan zehar bi delegatutik bat berri izango da.

Lakuntzak nabarmentzen duenez, prozesu honen iraupen luzeak hainbat ondorio ditu sindikatu osoarentzat. “Lehenik eta behin, Nafarroako militantzia osoa eskertu nahi dut, egiten ari diren lan apartagatik. Ez da erraza horrenbeste hilabetez tentsio hau mantentzea, baina lortzen ari gara. Ekainaren amaiera hor dago, horregatik, azken ahalegin bat eskatu nahiko nuke. Prozesu honen hasieran jarri genituen helburuak betetzetik gertu gaude, baina horretarako ezinbestekoa da datozen asteetan orain arte bezala lanean jarraitzea”.

Goiz da oraindik behin-betiko datuak emateko, baina Lakuntza pozik dago. “Ziurrenik ez da Nafarroa osoan egongo gurea bezalako zabalkunde sendoa duen erakunderik. Nafarroaren iparraldean lehen sindikatua gara; Iruñerrian dugun ordezkariak sendotzea lortu dugu, eta Erriberan inoizko emaitzarik onenak lortzen ari gara. Pentsa, Tuteran ELAK ordezkariaren %22a izatea esku-eskura daukagu”.

Azken asteetan egin diren hauteskundeetan ELAK emaitza bikainak lortu ditu. Bereziki aipagarriak Iruñako metalean gertatu dena. “Amets txiki bat dugula aitortu dezakegu lasai asko. Egun, bigarren sindikatua gara Iruñako metalean, %27ko ordezkari baina gehiago dugularik. Inoizko emaitzarik altuena da, baina hori ez da guztia. Lehen sindikatua izatetik hurbil

gaude, eta hurrengo asteetan lan ona egiten badugu helburua lortu dezakegula uste dut. Sekulakoa izango litzateke!”.

Honen lekuko hainbat adibide jartzen ditu. “Azken asteetan Iruñako metalean izandako hainbat emaitza emango ditut. Acciona Energian 13tik 7 ordezkari lortu ditugu. Enpresa berria da hau. Industrian Lotun lehen aldiz sartu gara komitean, 5etik 3 ordezkari lortuz. Emetalen ordezkari bakarra genuen, orain 5etik 3ra igo gera. Eta, noski, ezin ahaztu Gamesan orain arteko emaitza bikainari eutsi diogula: 13tik 8”.

Emaitza onak ez dira Iruñako metalera mugatzen. “Jakina da administrazio publikoan oso emaitza positiboak lortu genituela. Nafarroa osoan, iparraldetik hegoaldera, federazio eta sektore guztietan gure ordezkariak sendotzea, eta kasu askotan indartzea, lortzen ari gara. Berriz diot, erronka handia jarri genuen, baina gure esku dago”.

*El periodo concentrado de elecciones sindicales en Navarra finaliza el 30 de junio. Vamos bien, pero hay que hacer un último esfuerzo. ¡Ánimo!*

**Un informe elaborado por ELA desmonta los argumentos de gobiernos y patronal para justificar los recortes y los ataques a la negociación colectiva**

# INCREMENTAR JORNADA Y FLEXIBILIDAD SUPONE MÁS DESEMPLEO

El gabinete técnico de ELA acaba de hacer público un exhaustivo informe que desmonta los argumentos de gobiernos y patronal para justificar sus políticas de recortes y de ataque a la negociación colectiva. Con datos oficiales en la mano, la principal conclusión del informe es que la evolución del reparto de la riqueza está beneficiando a las rentas empresariales y del capital, en perjuicio de las rentas de trabajo.

En concreto, en la CAPV, de 1980 a 2009 las rentas de trabajo han perdido 7,1 puntos mientras que las rentas empresariales y del capital han crecido 5,6 puntos. De mantenerse en 2009 el mismo reparto de la riqueza que en 1980, las rentas de trabajo habrían ingresado 4.592,5 millones de euros más, y cada persona asalariada, 5.979 euros más en ese año. "Ha sido un saqueo organizado y espectacular a la clase trabajadora", denunció Mikel Noval, responsable de política social.

En Navarra, por su parte, la pérdida de 1,6 puntos del PIB de las rentas de trabajo significa que el total de personas asalariadas habrían ganado 254,7 millones de euros más en el año 2009 de haberse mantenido el mismo reparto de la riqueza que en el año 2000. Así, cada persona asalariada ha dejado de ingresar 1.136,3 euros ese año.

Asimismo, en el estudio se desvela que la ganancia media de los trabajadores y trabajadoras, de las personas pensionistas y de quienes perciben prestaciones por desempleo, están muy por debajo de la renta per cápita (31.334 euros). En concreto, la ganancia media de los trabajadores y trabajadoras de HEH fue en 2008 de 24.020 euros en la CAPV, y de 21.950 en Navarra. La ganancia media de quienes tienen un contrato temporal (18.806 euros en la CAPV ó 16.913 euros en Navarra) y de las mujeres (20.466 euros en la CAPV ó 18.065 en Navarra) es aún más baja. Por otra parte, la pensión media en HEH está por debajo de los 1.000 euros, "quedando muy lejos de ser una cantidad digna con la que poder llevar a cabo una vida razonable". Asimismo, la cuantía media de la prestación por desempleo ha sido de 946,8 euros en HEH en febrero de 2011. Estos datos contrastan sangranamente, con los ingresos que quienes dirigen las empresas, en muchos casos "indecentes".

## **COSTES LABORALES POR DEBAJO DE LA MEDIA EUROPEA; PRODUCTIVIDAD, MUY POR ENCIMA**

Otra de las grandes conclusiones del informe es que mientras que los costes laborales en Hego Euskal Herria están



por debajo de la media europea, la productividad es notablemente mayor. Los costes laborales en la CAPV son un 11,4% inferiores a los de la media de los 27 estados de la Unión Europea; y los de Navarra un 15,7% menores.

Por su parte, la productividad de la CAPV se sitúa entre las más elevadas de la UE. En concreto, mientras que la productividad media de la UE-27 ha sido del 100 en el ejercicio 2009, la de la CAPV se ha situado en el 132,4., sólo superada por Irlanda y Luxemburgo.

Asimismo, Mikel Noval dijo que en los años de crisis ha aumentado el diferencial de productividad, lo que explica que aquí se ha destruido muchísimo más empleo en términos porcentuales. "Producir más con menos empleo -que es lo que supone que la productividad sea elevada- aumenta el paro. Quienes abogan por aumentar la productividad a toda costa deberían trasladar a la sociedad que están apostando por un incremento del paro", exigió este responsable sindical.

## **AUMENTAN LOS BENEFICIOS DE LAS EMPRESAS Y DESCENDEN LOS COSTES LABORALES**

Otra conclusión del informe es que mientras descienden los costes laborales aumentan los beneficios de las empresas. Según un informe del Banco de España durante el ejercicio de 2010 respecto al ejercicio de 2009 el resultado ordinario neto de las empresas ha aumentado un 6,5% mientras los gastos de personal han descendido un 1% (el aumento salarial medio fue del 0,8%, y el empleo cayó el 1,8%). Los beneficios empresariales son aún mayores en las grandes empresas que en

2010 ganaron un 24,5% más que en el ejercicio anterior.

## **HAY QUE SUBIR LOS SALARIOS**

Según Joseba Villarreal, responsable de negociación colectiva, estos datos demuestran que hay margen para la reivindicación salarial en la negociación colectiva. "A pesar de ello" -criticó- "la patronal niega la posibilidad de negociar y se limita a plantear chantajes, congelaciones, recortes y pérdidas de derechos en general".

El responsable de negociación colectiva de ELA afirmó que los planteamientos de la patronal de incrementar jornada supondría más paro. Sobre la flexibilidad, otro de los caballos de batalla en la actualidad, Villarreal aseguró que hay demasiada. Y sobre la reivindicación patronal de ligar las subidas salariales a la productividad, Villarreal adelantó que "no vamos a aceptar el cambio de referencia del IPC pasado por el de la productividad".

Villarreal se mostró muy preocupado por el incremento del desempleo y, en este sentido, denunció que "no sólo no existen políticas públicas tendentes a crear empleo sino que los planteamientos de Administración y patronal suponen perpetuar en el desempleo a mucha gente."

En relación a la reforma de la negociación colectiva que se ultima en Madrid, este responsable de ELA afirmó que "la negociación colectiva no tiene un problema de ordenación o regula-

ción sino de contenido". Villarreal concluyó afirmando que ELA seguirá disputando a la patronal la parte de los trabajadores en la negociación colectiva.

## **GOBIERNO NOQUEADO**

Al igual que lo hizo el responsable de negociación colectiva, en su valoración del informe elaborado por el gabinete técnico de ELA, Adolfo Muñoz, Txiki, insistió en la idea de que incremento de jornada y de flexibilidad suponen más desempleo, y que existe una campaña orquestada para culpar a los salarios de la situación "cuando en modo alguno son responsables de la misma". En este sentido, Txiki afirmó que es justo y necesario subidas salariales que, además, contribuirían a activar la economía.

Txiki fue más allá en sus críticas a las políticas de los distintos gobiernos (control del déficit, fiscalidad regresiva, recortes sociales...) y advirtió que "si gobierno y patronal persisten en sus medidas económicas nos llevarán al colapso".

En su repaso de la actuación patronal en la actual coyuntura, el secretario general de ELA se preguntó por qué si el principal problema de las empresas vascas es la falta de crédito no critican al poder financiero, para concluir que "la patronal defiende los intereses de la economía especulativa".

En otro momento de su intervención, Txiki afirmó que la patronal tiene licencia para todo y que ve a su presa, la clase trabajadora, desprotegida, "porque el gobierno está noqueado". "La patronal está cómoda, -continuó- porque si los sindicatos españoles no le dan lo que piden, ya se lo dará el gobierno; éste -al que le quedan cuatro días- o el que venga". El secretario general de ELA fue muy crítico con el gobierno Zapatero, "que va a llevar adelante la reforma de la negociación colectiva cueste lo que cueste, cumpliendo a rajatabla la agenda del capital", denunció.

Sobre esta reforma, Txiki añadió que supondrá un ataque a los salarios "ya que parte de la base de que son los culpables de la situación", al tiempo que calificó el proceso negociador de "un gran fraude".

El secretario general de ELA concluyó afirmando que el trabajo del sindicato es hacer frente a todos estos ataques a los derechos de la clase trabajadora. "Vamos a responder", aseguró.

*"Gobernuek orain arteko neurriekin jarraituz gero, hondamendira goaz"*

**Bi urte batzartu gabe egon ostean, ELAk egungo politikak errotik aldatzea exijitu dio Gemma Zabaleta sailburuari**

# "JAURLARITZA PATRONALAREN INTERESEN MENPE DAGO"



**B**i urte pasatxo daramatza egungo Eusko Jaurlaritzak agintean. 2009ko maiatzetik, hain zuzen. Hala ere, ELAk hamaika aldiz eskatu duen arren, Enplegu eta Gizarte Gaietarako sailburu Gemma Zabaletak ez du 2011ko ekainaren lehen egunera arte tarterik izan gure sindikatuarekin batzartzeko. ELAko gizarte gaietarako arduradun Mikel Novalek legealdiko lehen bilera honen nondik norakoak aztertzen ditu.

**-Agerikoa da Gemma Zabaletak agenda estua duela. Bi urte pasatxo behar izan ditu EAEko sindikatu nagusiarekin batzartzeko. Zeintzuk izan ziren bileraren arrazoiak?**

-Jaurlaritzak Lan Harremanen Kontseiluan (LHK) eta Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean (EGAB) egin dituen lege-aurreproiektuak direla-eta batzartu gara. Jakina denez, ELAk erakunde bietako parte hartzea etenda dauka.

**-Zein helburu du aipatzen duzun lege aldaketak?**

-Helburu argia du: bi erakunde horiek babesa ematea Lopezen gobernuak gizarte eta lan gaietan dituen politiketara. Bestalde, beto kontzeptua

manipulatu egiten dute (betorik ez dago arau demokratikoak aintzat hartzekotan), gutxiengo sindikalaren mesedetan. Jaurlaritzak eta patronalak gutxiengo sindikalari ez dagokiona eman nahi diote, honek bete dezan leporatu nahi dioten egitekoa, Estatuan eta Nafarroan bezalaxe.

**-Zeintzuk dira Zabaleta sailburuari luzatu zitzaizkion kekek?**

-Gure iritzia azaldu genion LHKk eta EGABek egungo egoera ekonomikoan beren gain hartu duten egitekoari buruz. Noski, iritzia oso kritikoa da. Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak prestazio publikoetan murrizketak egitea justifikatzen du, eta diru-sarrera publikoak kopagoaz osatu behar direla dio. EGABentzat, antza denez, ez dago politika fiskalik. Lan Harremanen Kontseiluak, berriz, patronalaren nahiak asetzen ditu, esanez hitzarmen kolektiboak etengabe moldatzeko modukoa izan behar duela, egoeraren arabera.

Jarduera horretatik ateratzen dugun ondorioa hau da: organo horietan parte hartzeak onarpen bat ezartzen die bere kideei. Ezin da ez esan ez egin patronalari edo gobernuari traba egin diezaiokeen ezer.

**-ELA kritikoa da Jaurlaritza krisiaren inguruan egiten ari den kudeaketarekin.**

-Jaurlaritzak, bere eskumenekin, Espainiako gobernuaren arrastoari jarraitzen dio murrizketak ezartzerakoan, eta are gogorragoa da gizarte-laguntzak gutxitzen. Bere erabakiak patronalaren eskariekin bat datoz: aurrekontuak, murrizketak, fiskalitate...

Jaurlaritzak Estatuarekin krisi ekonomikoaren eraginei aurre egiterakoan ekinbide politiko zein ekonomiko zeharo mugatzen duten akordioak iristen ditu, defizita edo zorrarentzako mugak kasu.

Bestalde, nabarmentzekoa da EAEko gobernuak daraman politikaren helburu nagusietako bat Estatu baitako politikak uniformatzea dela. Hor dago, adibide bat jartze aldera, enplegu-politika aktiboen transferentziarekin gertatu dena. Bertan arautzeko esparruak kendu eta bide batez Estatuan erabateko porrota izan duten politikak ezarri dira.

Jaurlaritzaren jarrerak oreka guztiak deuseztatzen ditu eta patronalari lizentzia ematen dio komeni zaion oro lortzeko: hitzarmenak ez dira betetzen, lege-iruzurrari ez zaie jazartzen, fiskalitate injustua ez da aldatzen, diru publiko ematen zaie... Patronalak lan-baldintzei eraso egiten die, kokapen pribilegiatua duela jakinik.

**-ELAk askotan salatu du Jaurlaritzak ez dituela demokraziaren joko arauak errespetatzen. Hor daude gutxiengo sindikalarekin lortutako akordioak. Horren inguruan hitz egin al zenuten?**

-Bai, noski. Argi eta garbi azaldu genion Zabaletari ELAk ez duela lasterbide antidemokratikorik onartzen. Oso gauza simplea eskatzen dugu: euskal langileen borondatearekiko errespetu demokratikoa. Jaurlaritzak bermatu egin behar dio antolakunde bakoitzari aintzat hartuko duela bere ordezkariak erabiltzeko buruz hartzen duen erabakia, eta erabaki horrek izan ditzakeen ondorioak ez direla manipulatuak.

*"El Consejo Económico Social y el Consejo de Relaciones Laborales actúan para los intereses de la patronal"*

### • El proceso de negociación de la reforma de la negociación colectiva es inaceptable

El 2 de junio los sindicatos UGT y CCOO y la patronal CEOE anunciaron en Madrid que "daban por rota la negociación para la reforma de la negociación colectiva". ELA denuncia que el todo lo que rodea a este proceso de negociación es inaceptable. El gobierno de Zapatero dijo que si no había acuerdo haría la reforma por decreto, anunciando que haría suyas muchas de las peticiones patronales. Ahí se acabó la negociación.

La patronal sabe desde el principio que sus posiciones salen ganadoras, bien porque CCOO y UGT las aceptan o porque el gobierno las lleva a la ley. La patronal juega siempre con 31 y de mano. CCOO y UGT han cometido el mismo error que en la reforma laboral: pensar que tienen en el gobierno un aliado.

ELA recuerda que los contenidos que se anuncian son muy graves. A expensas de valorar lo que apruebe el Gobierno español el próximo día 10 de junio, todo apunta a un nuevo recorte de los derechos laborales, a un ataque a la defensa colectiva de los y las trabajadores.

### • Desconvocada la huelga de Ingemar

Tras 87 días de huelga, la asamblea de trabajadores/as de Ingemar acordó desconvocar la huelga que mantenían en protesta por los despidos recogidos en el ERE de rescisión presentado por la empresa. El expediente afectaba a 60 personas. La Delegación de Trabajo ha reducido los despidos a 30, dejando sin efecto el ERE de suspensión que estaba aprobado hasta el 31 de julio de 2011. Además, la empresa apuesta por la continuidad del proceso fabril en la fábrica de Usurbil, y renuncia a convertir la planta en una mera comercializadora de producto acabado. De la misma manera se compromete a presentar un plan estratégico para el periodo 2012-2014, y el comité de empresa efectuará un seguimiento del mismo.

[www.ela-sindikatua.org](http://www.ela-sindikatua.org)

**ELA** **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao  
Tel. 94 403 77 00  
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

[www.ela-sindikatua.org](http://www.ela-sindikatua.org)

Franqueo concertado  
nº 08/207